

**MOTIBAZIO POLITIKOKO
INDARKERIA-EGOERAN
GERTATUTAKO GIZA ESKUBIDEEN
URRAKETEN ETA SUFRIMENDU
BIDEGABEEN BIKTIMAK**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

TXOSTENA

**MOTIBAZIO POLITIKOKO
INDARKERIA-EGOERAN
GERTATUTAKO GIZA ESKUBIDEEN
URRAKETEN ETA SUFRIMENDU
BIDEGABEEN BIKTIMAK**

AURKIBIDEA

1. JUSTIFIKAZIOA

2. HELBURUA

3. EREMUA

4. TESTUINGURUA

5. ESPARRU TEORIKOA

6. BIZITZEKO ETA OSOTASUNERAKO ESKUBIDEA: HAUTATZEKO
ARRAZOIAK

7. KATEGORIAK

8. AHOLKUAK

9. ONDORIOAK

1. JUSTIFIKAZIOA

Eusko Legebiltzarrak, Terrorismoaren Biktimei buruz 2007ko urriaren 5ean egindako bilkura monografikoan, elkartasuna adierazi zien terrorismoaren biktimei, eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde garrantzitsuenek biktimekin duten konpromisoa berresten duten 21 ebazpen onartu zituen. Ebazpen horietako lehenengoa motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen beste biktima batzuen errealitateari buruzkoa zen, eta hauxe eskatzen zuen hitzez hitz:

“1. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak kontrolatu gabeko taldeen, eskuin muturreko taldeen eta GALen terrorismoak eragindako biktimen gaineko ikerketa-txosten sakon eta zehatza egin dezala, arreta berezia jarritz biktimen identifikazioan eta indarrean dagoen legedian aitortzen diren eskubideen aitortza mailaren ikerketan.

2. Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak motibazio politikoak eragindako giza eskubideen zapalketa jasan duten beste biktimen errealitatearen gaineko ikerketa-txosten sakon eta zehatza egin dezala, arreta berezia jarritz biktimen identifikazioan eta aitortza moral eta ordaintza egiteko beharrezko neurriak aztertzen.

3. Aipatutako lehenengo ikerketa-txostena 2008ko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko du Jaurlaritzak Terrorismoaren Biktimen lantaldearen aurrean.

4. Aipatutako bigarren txostena, berriz, 2008ko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da Giza Eskubideen Batzordearen aurrean.

2008ko ekainaren 24an, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak goiko erabakiaren 1. puntuan eskatutako txostena aurkeztu zuen Terrorismoaren Biktimen lantaldean.

Bestetik, agindu horretako 2. eta 4. puntuetan eskatutakoaren ondorioz, “Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena” egin zen, eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean aurkeztu zen 2008ko ekainaren 24an.

Bigarren txosten horretan, motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketan testuingurua azaldu, urraketa horiek kategoriatan sailkatu eta urraketa-kopurua zehatza nahi izan zen, bai eta biktimen aitortzen eta erreparazioan aurrera egiteko hainbat neurri gomendatu ere. Txostenean bertan azaltzen zenez, azken helmuga baino gehiago erdibideko pausoa zen hori, amaiera barik ikuspegi eta ekarpen gehiago izan beharko zituen prozesu baten hasiera.

Horretan oinarrituta, eta izandako eztabaida, proposamen eta parte-hartzeen ondorioz, joan den abenduaren 22an, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak, aho batez, legez besteko proposamen bat onartu zuen, testu honen arabera:

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzari eta Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari eskatzen die lanean jarrai dezatela lehen pauso gisa 2008ko ekainean aurkeztu zen Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena delakoarekin. Txosten horrek aztertu beharko ditu Euskadin azken hamarkadetan indarkeriak eragin dituen giza eskubideen urraketek sortutako sufrimendu bidegabea, gaur arte kontuan hartua izan ez dena; horrela, biktima horiek aintzat hartzean ere egingo da aurrera. Aipatutako txostena Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean aurkeztuko da, sei hilabete baino lehenago.

Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurkez dezala, data berean, erreparazioa egiteko lehenengo neurrien proposamena."

Agindu hori aintzat hartuta, beste txosten bat egitea proposatu da, prozesuari jarraipena emateko.

Dagozkion zuzendaritzek onartu egin dute erronka eta hiru lan-ildo identifikatu dituzte:

1. Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimen gaira hurbiltzea, indarrean den esparru juridikoarekin eta esparru horren konstituzio-oinarriarekin bat datorren eta arlo honetako nazioarteko estandarrekin bat datorren ikuspegi juridikotik. Txostenak oso zehatza izan beharko du, bai barne-zuzenbidearen ikuspegitik bai giza eskubideen gaineko nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik, arreta berezia eskainiz nazioarteko erakundeen irizpide eta gomendioei.

Hurbilketa hori, edonola ere, euskal errealitatera egokitu beharko da, eta, era berean, aintzat hartuko da terrorismoaren biktimen garrantzi berezia, giza eskubideen beste urraketa batzuk eta beste sufrimendu bidegabe batzuk jasan dituzten biktimenarekin batera, betiere, egoera desberdinak parekatu gabe, baina denei dagokien arreta eta erantzuna emanez. Lan honen helburua izango da sufrimendu bidegabe horien guztien biktimak aitortzea, biktimen memoria eta sufrimendua ohoratzea eta biktimen tratamendu sozial eta politikorako gomendio batzuk aurkeztea. Eta hori guztia diskurtso politiko baten barruan kokatu beharko da, herri honetan, posizio politiko desberdinetatik, giza eskubideen kultura bat defendatzen duten guztiek konpartitzeko moduko diskurtso baten barruan. Agindu hori betetzea, eta amaieran, agindua emateko orduan bezala, guztien adostasuna lortzea izango da azterketa honen erronka handia.

2. Dauden sufrimenduen errealitatea eta sufrimendu horien ezaugarrien heterogeneotasuna kontuan hartuta, zenbait kategoria ezarri ditugu, giza eskubideen urraketen tipologia desberdinak modu egokian jaso ahal izateko. Kategoria horiek juridikoki oinarrituta egon beharko dute eta sufrimendu bidegabe guztiak behar bezala bildu eta aitortu beharko dituzte.
3. Gomendioak proposatzea. Gomendio horiek, identifikatutako kategoria batzuetarako gutxienez, erreparazio-neurriak jaso beharko dituzte eta gai honen inguruan aurrerantzean eman daitezkeen pausoak zehaztu ahal izateko balio beharko dute. Barruko (Erkidegoko eta Estatuko) beste lege batzuetan dagoeneko badiren erreparazio-neurriak eta nazioarteko estandar eta praktikarik onenak hartuko dira erreferentzia gisa.

2. HELBURUA:

Euskadin izandako indarkeria politikoko egoeran gertatutako giza eskubideen urraketak eta beste sufrimendu bidegabe batzuk jasan dituzten biktimek, politika publikoetan orain arte aintzat hartu ez direnek, bizi duten errealitatearen azterketan eta aitorpenean nabarmenki aurrera egitea, Konstituzioan jasotako eskubide eta askatasunetan oinarrituta eta giza eskubideen alorreko nazioarteko zuzenbidea aintzat hartuta.

Halaber, txostenean, eskumena duten erakundeek biktimen aitorten eta erreparazioan benetan aurrera egiteko ezarri beharreko neurri zehatzen gomendioak aurkeztuko dira.

Txostena egiteko, Konstituzioak babestutako eskubide eta askatasunak, erreferentziatzat har daitekeen nazioarteko zuzenbidea eta, kasu batzuetan, arlo honetan eskumena duten nazioarteko erakundeetatik eratorritako *soft law* deritzona izango ditugu kontuan.

Txostena teknikoki zehatza izatea nahi dugu, baina, edonola ere, printzipio eta irizpide teknikoak Legebiltzarrak agindutako azken helburuaren menpe jarriko dira: motibazio politikoko indarkeria-egoeran gertatutako giza eskubideen urraketak edo sufrimendu bidegabeak jasan dituzten biktima guztiak duintasunez eta modu onargarrian aitortzea.

3. EREMUA

3.1. Denbora:

Txosten honek 1968ko urtarriletik 2010eko ekainera arteko denbora-tartea hartzen du, izan ere, Legebiltzarreko aginduak data horretan ezarri zuen amaiera. Hasierako data Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakusteko 1999ko Legearekin bat etorritz ezarri da.

3.2. Lurraldea:

Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak 2009ko abenduaren 22an onartutako legez besteko proposamenak hauxe dio: "Euskadin azken hamarkadetan indarkeriak eragin dituen giza eskubideen urraketek sortutako sufrimendu bidegabea"; beraz, txosten honek, lehenengo eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoan izandako giza eskubideen urraketetan jarri du arreta.

Era berean, ahal den neurrian, beste esparru geografiko batzuetan izandako gertaerak ere hartuko dira kontuan, baldin eta biktimak EAEkoak badira, eta, inoiz, EAEkoak izan gabe ere, giza eskubideen urraketan Legebiltzarraren aginduak aipatzen duen motibazio politikoko indarkeriarekin lotutako motibazioa edo errebindikazioa izan bada.

3.3. Urratutako eskubideak

Legebiltzarraren aginduak giza eskubideen urraketa aipatzen du, orokorrean. Giza eskubideen zerrenda luzea izan liteke, erreferentzia gisa Deklarazio Unibertsala, Europako Konbentzioa, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Ituna edo beste edozein testu hartuz gero. Txosten honetan eskubide horien guztien elkarrekiko mendekotasuna eta zatiezintasuna aitortzen da, 1993ko Vienako Deklarazioarekin bat etorritz. Baina, era berean, txosten honetarako, hizpide dugun indarkeriak zehazki eta larriki erasandako eskubideetan arreta jartzera behartzen gaitu Legebiltzarraren aginduak. Horrela, bada, txosten honetan Bizitzeko Eskubidearen eta Osotasunerako Eskubidearen urraketei emango zaie lehentasuna.

Erabaki honekin ez dugu, gerora, beste eskubide batzuen urraketei buruzko lan-ildoak itxi nahi, baina bai gaur eguneko helburuak finkatu.

3.4. Kontzeptuei buruzko argibideak:

Legebiltzarraren aginduan “motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena” egiteko eskatu da, eta badirudi lan-eremua zabaldu egiten duela, berariaz aipatzen baitira “sufrimendu bidegabeen biktimak”.

Guretzat zer dira?

“BIKTIMAK”:

Delituen eta botere-abusuaren biktimentzako justiziaren gaineko funtsezko printzipioei buruzko deklarazioarekin bat etorriz —NBERen Biltzar Nagusiak 40/34 ebazpenaren bidez onartua—, biktimatzat hartuko dira, estatu kideetan indarrean dagoen zigor-legeria —botere-abusua galarazten duena barne— urratzen duten egite edo ez-egiteen ondorioz, banaka edo taldeka, kalteak (lesio fisiko edo mentalak barne), sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo oinarrizko eskubideen galera nabarmena jasan dituztenak. Nabarmendu beharrekoa da, Deklarazioaren arabera pertsona bat biktimatzat hartu ahal izango dela nahiz eta kaltea eragin duena identifikatu, atzeman, auzipetu edo kondenatu ez eta kaltea eragin duenaren eta biktimaren arteko familia-harremana edozein dela ere”. “Biktima” terminoaren barruan, gainera, zuzeneko biktimarekin harreman zuzena duten familiartekoak edo haren kargura daudenak sartuko dira, baita arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa prebenitzeko esku hartzean kalteak izan dituztenak.

Biktimaren interpretazio zabalago hori barne-zuzenbidean ere badago jasota. Hori dela eta, azpimarratzekoa da Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa Egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen 2.2. artikulua dioena: “Lege honetan aitortutako eskubideak eta prestazioak ekintza terroristetako biktima zuzenentzat eta haien familiakoentzat edo hurbilekoentzat dira, kasu bakoitzerako adierazten den moduan”.

Giza eskubideen gaineko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak jasan dituzten biktimek errekurtsioak jartzeko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarrizko printzipio eta arauen arabera —Biltzar Nagusiak 60/147 ebazpenaren bidez 2005ean onartuak—, biktimak gizalegez eta euren duintasuna eta giza eskubideak errespetatuz tratatu behar dira eta neurri egokiak hartu behar dira biktimen —eta biktimen familien— segurtasuna, ongizate fisikoa eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko.

“GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK”:

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak adierazi duenez, giza eskubideak balio unibertsalak eta berme juridikoak dira, oinarrizko askatasunetan, eskubideetan eta giza duintasunean eragiten duten Estatuko agenteen (batez ere Estatuko agenteak dira, baina izan litezke beste batzuk) egiteetatik edo ez-egiteetatik pertsonak eta taldeak babesten dituztenak. Giza eskubideak unibertsalak dira, hau da, gizaki guztien berezko eskubideak dira, eta elkarren mendekoak eta zatiezinak dira. Vienako Deklarazioan (1993) adierazten denez, “giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak gizaki guztien berezko ondarea dira, eta giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babestea gobernuen lehentasunezko ardura da”.

Giza eskubideak, nazioarteko zuzenbidean, gizabanakoa Estatuaren abusetatik babestearekin lotu izan dira batez ere. Arlo horretan, beraz, ez da harritzekoa giza eskubideak bete eta zaintzeko arduradun bakarrak estatuak direlako ideia nagusitzea sarritan. Ikuspegi horretatik, “giza eskubideen urraketa” terminoa ez zaie *per se* ekintza krudel jakin batzuei aplikatzen, esate baterako, torturari, derrigorreko desagertzeari edo erailketari, ezpada ekintza horiek Estatuak edo Estatuaren agenteek egindakoak badira aplikatzen da.

Hala ere, gero eta zantzu eta elementu gehiagok erakusten digutenez, esan dezakegu nazioarteko zuzenbideak aintzat hartzen duela, era berean, giza eskubideen ikuspegia partikularrek eragindako sufrimendu bidegabeen kasuan, konnotazio politikoko indarkerien esparruan gertatzen direnean, batez ere, terrorismoaren kasuan.

Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legearen zioen azalpenean ideia hori jasotzen da. Hona hemen, hitzez hitz: *“Praktikak eta jurisprudentziak, nazioartekoak zein konparatuak, argiro demonstratu dute Estatutik at diharduten talde pribatuek eragindako giza eskubideen urraketa larriak egin daitezkeela, eta, era berean, batzuetan demonstratu den bezala, talde pribatu horietariko batzuek Estatuaren beraren edo Estatuko sektore batzuen baiespenaz jardun dezaketela”*.

Txosten honetan, giza eskubideen urraketa kontzeptuaren irakurketa zorrotz batetik abiatuko gara, baina kontzeptu horren barruan sartuta izango dira, era berean, Estatukoa ez den terrorismoaren biktimei sufrimendua eta giza eskubideen urraketa.

Terrorismoak, Nazio Batuen Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoak dioenez, giza eskubideei eta gizartearen funtzionamenduari erasaten die. Baina terrorismoaren aurka borrokatzeko estatuak hartutako neurriek ere erasan diezaiekete giza eskubideei eta gizartearen funtzionamenduari. Estatuak, beren jurisdikzioaren peko pertsonen bizitza eta segurtasuna babestea dakarten giza eskubideen arauekin bat etorritik dagozkien betebeharrak betetzeko asmoz,

terrorismoaren kontrako neurri eraginkorrak hartzeko eskubidea eta betebeharra dute, etorkizunean izan daitezkeen eraso terroristak prebenitzeko eta eraso horiek egiteko asmoa desagerrarazteko, baita ekintza horien arduradunak auzipetzeko ere. Era berean, terrorismoaren aurka borrokatzeko neurri guztiek bete egin behar dituzte estatuei nazioarteko zuzenbidearen arabera dagozkien betebeharrak guztiak, batez ere, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak.

Horrela, terrorismoaren aurkako neurri eraginkorrak eta giza eskubideen babesa helburu osagarriak dira, elkar indartzen dutenak, eta batera lortu beharrekoak, estatuek beren jurisdikzioaren peko pertsonak babesteko duten betebeharraren barruan.

Ildo horretatik, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak eta Giza Eskubideen Batzordeak nabarmendu dutenez, estatuek zaindu egin behar dute terrorismoaren aurka borrokatzeko neurri guztiek nazioarteko zuzenbidearen eta giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen arabera dagozkien betebeharrak betetzen dituztela. Segurtasun Kontseiluak gauza bera egin du, 1456 ebazpenean (2003) azaltzen den deklarazioarekin. Bertan azaltzen denez, “estatuek ziurtatu egin behar dute terrorismoaren kontra borrokatzeko hartzen diren neurri guztiek bete egin behar dituztela nazioarteko zuzenbidearekin bat etorri estatuei dagozkien betebeharrak, batez ere, giza eskubideei buruzko eta errefuxiatuei buruzko arauak eta zuzenbide humanitarioa. Jarrera hori berretsi egin zen Segurtasun Kontseiluaren 1624 ebazpenean (2005). Izan ere, 2006ko txostenean —“Terrorismoaren aurka bat eginik: terrorismoaren aurkako borrokarako mundu mailako estrategia ezartzeko gomendioak” (A/60/825)—, Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiak giza eskubideak funtsezkotzat jo zituen terrorismoaren aurkako estrategia baten alderdi guztiak gauzatzeko, eta, era berean, nabarmendu zuen terrorismoaren aurkako neurri eraginkorrak hartzea eta giza eskubideak babestea ez zirela helburu kontrajarriak, osagarriak eta elkar indartzen dutenak baizik. Halaber, tratatuetan oinarritutako organo unibertsalean eta eskualde-organotan ikusi da, sarritan, terrorismoaren aurkako neurriak zilegiak izan daitezen, neurri horiek giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen arabera izan behar dutela.

Terrorismoaren aurka borrokatzeko Nazio Batuen estrategia orokorrak berretsi egiten ditu giza eskubideen eta segurtasunaren artean dauden lotura banandu ezinak, eta, halaber, legearen inperioaren errespetua eta giza eskubideen errespetua oinarri-oinarrizkotzat jotzen ditu terrorismoaren kontra borrokatzeko estatuek banan-banan egiten dituzten eta nazioarte mailan egiten diren ahaleginetarako. Estrategiaren bidez, estatu kideek giza eskubideak eta legearen inperioa errespetatzen dela zaintzeko konpromisoa hartu dute, terrorismoaren aurka borrokatzeko funtsezko oinarri gisa. Hori eraginkorra izan dadin, terrorismoaren kontrako estrategia nazionalak formulatu behar dira, terrorismo-ekintzak prebenitzen ahalegintzeko eta terrorismoaren zabalkundea eragiten duten baldintzei

aurre egiteko, delitu-egintza horien erantzuleak epaitzeko edo legez estraditatzeko, gizarte zibilaren parte-hartze eta zuzendaritza aktiboa bultzatzeko eta giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktime guztien eskubideei zor zaien arreta eskaintzeko.

“MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIA”:

Indarkeria politikoaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostenean (2008ko ekaina), argitu egin ziren Legebiltzarraren hasierako aginduko kontzeptu batzuk. Hain zuzen ere, motibazio politikoko indarkeriaren definizioa jaso da bertan (“Indarkeria politikoaren definizioa”). Definizio horretan, lehenengo eta behin, bereizi egiten dira motibazio politikoko indarkeria eta “terrorismoa”, horrela, motibazio politikoko indarkeriaren biktimek hobeto identifikatu, erregistratu eta erreparatzeko.

Txosten horren arabera, motibazio politikoko indarkeriak hiru ezaugarri hauek izan behar ditu:

- 1) ·Eragileak edo subjektu aktiboak: ekintza biolentoen egileak Estatuaren agenteak dira, botere-abusua erabiliz edo gehiegikeriaz jarduten dutenak, bai eta Estatuaren agenteen laguntza edo onespena izan duten organizazioak eta talde parapolizialak ere.
- 2) Modus operandi: giza eskubideen urraketa dakarten ekintzen ezaugarriak: a) nolabaiteko antolaketa-maila dute, ekintzak eta eragileak, aldi-aldi, errepikatu egiten baitira; b) gizartean edo politikan eragiteko asmoz egiten dira, izu- eta ezintasun-sentimenduak eraginez; eta c) zigorgabetasun-egoera bat dago, eta horrek ekintzen ikerketa judiziala egitea eta errudunak zigortzea eragozteaz gain, galarazi egiten ditu biktimen —eta biktimen duintasunaren— aitorpena eta erreparazioa.
- 3) Biktimeak edo subjektu pasiboak: asmo politikoa dago indarkeriaren jomuga diren subjektuak hautatzeko orduan, bai arrazoi politiko edo ideologikoengatik aukeratzen direlako, bai herritarren artean beldurra eta izua eragiteko helburu orokorrari erantzuten diotelako —nahiz eta biktimeak ausaz eta bereizi gabe aukeratu—.

Gainera, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak talde inkontrolatuek, eskuin muturreko taldeek eta GALEk eragindako terrorismoaren biktimei buruz Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako txostenean adierazten zenez, Zuzendaritza horrek beste betekizun bat ezarri zuen, hau da, ekintza horien oinarrian izan zitekeen motibazio politikoak nolabaiteko lotura edo harremana izatea euskal egoeraren esparru zehatzarekin, bai ikuspegi politikoari dagokionez, edo bai, itxura batean, erantzun kontraterrorista izateari dagokionez.

Motibazio politikoko indarkeriari buruzko beste definizio batzuek lagundu egin dezakete errealitate hau hobeto aztertzen.

Horrela, Mariano Sánchez Solerrek, duela gutxi argitaratutako “La transición Sangrienta. Una historia violenta del proceso democrático en España (1975-1983)” lanean¹, Herbert Nieburg-en iritzia jaso du²; horren arabera, indarkeria politikoa da desorganizazio eta organizazio ekintzen eta lesioen multzoa, baldin eta horien helburuak, jomugen edo biktimen aukeraketak, gorabeherak, gauzapenak eta/edo ondorioek esangura politikoa hartzen badute, hau da, inoren jokabidea aldatzera jotzen badute gizarte-sisteman eragina izango duen negoziazio-egoera batean.

Lan berean, Mariano Sánchez Solerrek honela definitu du indarkeria politikoa: indarraren (fisikoa zein hitzezkoa) erabilera kontzientea, mehatxu bidezkoa, gizabanakoek, talde ideologikoen, erakunde publikoen, Estatuaren administrazio sektoreek, alderdiek edo erakundeek gauzatutakoa, herrialde bateko gertaera politikoen norabidean esku hartzeko edo aldatzeko, gobernuen erabakiak kontrolatu edo inposatzeko, edo Estatuaren boterea lortu, zuzendu edo mantentzeko asmoz. Era berean, Mariano Sánchez Solerren arabera, jatorri instituzionaleko indarkeria politikoa aipatzen denean, hauxe esan nahi da: ezarritako ordenari eusteko erabiltzen den indarkeria oro, Estatuaren erakundeetatik antolatua, bultzatua, inspiratua eta/edo onartua eta erabilia. Bi mailatan gertatzen da hori:

- Estatuaren aparatuen bihotzetik, gobernuaren administrazioaren beraren estamentu eta funtzionarioen bidez, behartzeko boterea baitaukate eta indarkeria gauzatu eta administratzeko baliabideak, armak eta estaldura logistikoa baitauzkate: poliziak, epaileak, armada...
- Arauzko erakundeetatik eta/edo Estatuak diruz lagundukoetatik, botere ofizialaren gainegituran parte hartzen baitute: erregistro ofizialetan inskribatutako elkarteak, erakundeak eta parlamentuan ordezkariak duten edo ez duten legezko alderdi politikoak.

¹ “La transición Sangrienta. Una historia violenta del proceso democrático en España (1975-1983)”, Mariano Sánchez Soler, Ed. Península, Bartzelona, 2010.

² “*Political violence. Teh Behavioral Process*”, H.L. Nierburg, Nueva York, St. Martin’s Press, 1969.

4. TESTUINGURUA

Txosten honetan azalduko diren eskubideen kategoriak eta esparru teorikoa aztertzeko, zenbait aldi bereizi behar dira, Espainiako estatuak izandako bilakaera politikoaren arabera. Jakina, giza eskubideen urraketa guztiak dira modu berean arbuiatzekoak. Denak dira ikertu beharrekoak, gaitzetsi eta erreparatu beharrekoak. Baina bereizi egin behar dira Espainiako estatuak aztergai dugun denbora-tartean izan dituen forma politiko desberdinak, izan ere, aldi bakoitzean, giza eskubideen urraketak eta sufrimendu bidegabeak eragin izan dituzten arrazoiak, denak izaera politikokoak izan arren, kontzeptualki eta analitikoki desberdinak dira. Gainera, giza eskubideen babesaren alorreko nazioarteko organoek zein doktrinak bereizi egiten dute Estatuak eta Estatuaren agenteek eragindako urraketak testuinguru demokratiko batean gertatu diren edo diktadurazko erregimen batean gertatu diren.

Espainian demokraziarako trantsizio-prozesuak izan zituen ezaugarriak eta Euskadiren berezko berezitasunak aintzat hartuta, ezin da argi eta garbi bereizitako bi aldiren arteko, hau da, diktaduraren eta demokraziaren arteko marra garbi bat egin. Beharrezkoa da beste aldi bat bereiztea: trantsizioaren hasieratik joan den mendeko laurogeiko hamarkadara artekoa, hain zuzen ere. Sasoi hartan, indarrean ziren, biak batera, diktaduraren ohiko errepresio politikoa eta demokrazia ezarri berriko politika antiterroristaren botere-abusua.

Horrela, bada, hiru aldi bereiz daitezke txostenak jorratzen duen denbora-tarteari dagokionez:

- 1) Francoren diktaduran izandako giza eskubideen urraketak eta sufrimendu bidegabeak. Aldi hartan, diktaduraren aurkarien kontrako errepresioa Estatuaren aparatutik gauzatzen zen, Estatuaren babes osoarekin, behar ziren arauak eta erakundeak erabiliz. Azken batean, oinarri-oinarriko giza eskubideen ukapen nabaria zen. Aurkari politikoak zigortzera bideratutako motibazio politikoko indarkeria zen. Era berean, herritarren artean izua hedatzea bilatzen zen, errebindikazio politikoaren zabalkundea saihesteko.
- 2) Demokraziaren lehen urteetan gertatutako giza eskubideen urraketak eta sufrimendu bidegabeak. Garai hartan, eragile publiko batzuek gauzatutako errepresioaz gain, Espainiako estatuko erakunde jakin batzuetatik bultzatu edo toleratutako talde parapolizialen ekintzak zeuden. Aldi horren denbora-mugak zehaztasunez ezartzea zaila den arren, amaiera laurogeiko hamarkadaren bigarren erdian kokatu dezakegu, talde horiek Estatuko

egituren laguntza galdu baitzuten eta politika antiterrorista giza eskubideen alorrean doktrinak, nazioarteko erakundeek eta zuzenbide konparatuak ezarritako erregeletara egokitzen hasi baitzen.

Motibazio politikoko giza eskubideen urraketa eta sufrimendu bidegabetzat har daitezke aldi horretan gertatutakoak. Horietan, kontzeptu hori definitzen duten ezaugarriak ematen dira. Batetik, egileak Estatuko agintariak edo Estatuaren erakundeetako batek babestutako taldeak edo subjektuak dira. Bestetik, “modus operandi” edo jokabidean nolabaiteko plangintza eta antolaketa ikusten da, baita zigorgabetasun-egoera eta herrialdearen egoera eta gertakari politikoetan eragiteko ahalegina ere. Azkenik, biktimen aukeraketak ere motibazio politikoko indarkeriatzat hartzeko beharrezkoa den asmo politikoari erantzuten dio.

- 3) Hirugarren aldian, joan den mendeko laurogeiko hamarkadaren bigarren erditik aurrera gertatutako giza eskubideen urraketak eta sufrimendu bidegabeak daude, Estatuko eragileek politika antiterroristaren barruan gehiegikeriaz jokatzearen eta autoritate-abusuaren ondoriozkoak. Jazartzeko moduko eta bide penaletik zigortzeko moduko giza eskubideen urraketak dira, baina ezin dira, orokorrean, motibazio politikoko indarkeriatzat hartu. Ez dira aldi berean azaltzen indarkeria politikoa gauzatzen dutenen “modus operandi” edo jokatzeko modua definitzen duten ezaugarriak: a) ez dira orokorrak eta ez daude planifikatuta, eta horren erakusgarri da modu nabarmenean gutxitu direla eskubideen urraketa larrien kasuak; b) ez da ikusten gertaera politikoetan eragiteko asmoz izua hedatzeko asmorik dagoenik; eta c) aldi horretan ez dago indarkeria politikoaren ezaugarri den zigorgabetasun-egoera orokor hori, izan ere, eskubide horien urraketa salatuz gero, martxan jartzen baita urraketa horiek ikertzeko mekanismoa —hobetzeko modukoa, jakina—.

Baina urraketa horiek indarkeria politikotzat ez hartzeak ez du esan nahi larriak ez direnik, ezta nahitaez ikertu, erreparatu eta etorkizunean saihestu behar ez direnik. Eskubideen urraketa eragin dezaketen ekintzak herritarrak beldurtzera eta bizitza politikoan eragitera zuzendutako eta planifikatutako estrategia politiko baten barruan egon ez arren, horrek ez du esan nahi txosten honen esparrutik baztertu behar direnik.

Orokorrean, txosten honetan egindako gomendioak hiru denbora-tarte horietan giza eskubideen urraketak —bizitzeko eskubidea eta osotasunerako eskubidea, zehazki— jasan dituzten biktimei behar bezalako aitorpena eta erreparazioa egiteko dira; eta berdin dio, ikusi denez, testuinguruaren arabera oso egoera desberdinak izatea (tratamendu bereziak behar dituztenak).

Zuzenbidezko estatua eta sistema demokratikoa indartu egiten dira begirada kritiko baten bidez iragana berrikusteko saiakera honekin, horrela, hala behar izanez gero, behar diren azterketa- eta zuzenketa-mekanismoak hartzeko, betiere jomuga herritar guztien eskubide eta askatasunen babesean jarritz.

Testuinguru garrantzitsu horretan, herritar guztien eskubide zibil eta politikoak defendatzeko, botere publikoen betebeharra da herritarrei segurtasuna eskaintzea, eskubide eta askatasunen kontrako erasoetatik babestuz. Egoera horretan, segurtasuna eta askatasuna, terrorismoaren aurkako borroka eta giza eskubideen defentsa elkarri lotutako osotasun gisa hartu behar dira, elkar elikatzen duten elementu gisa, modu horretan, zuzenbidezko estatuaren legitimitatea indartuz.

5. ESPARRU TEORIKOA

Lehen adierazitako denbora-tartean, herri honetan bizi izan ditugun giza eskubideen urraketak oso heterogeneoak dira, eta jatorriak, ezaugarriak eta egileak askotarikoak dira.

Lehen talde batean terrorismoaren biktimak sar ditzakegu, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legean jasota datozen bezala. Honela dator jasota: *“Ekintza terrorista bat edo, banda edo talde armatu batean egonik, herritarren bakea eta segurtasuna modu larrian eraldatzea helburu duten pertsonen ekintza nozitzen duten edo nozitu duten pertsonen aplikatuko zaie lege hau. Aplikatuko da, halaber, erantzuleak xede hori duten talde edo bandetako kide ez izan arren, asmo berarekin jarduten badira.”* (ekainaren 19ko 4/2008 Legearen 2.1. artikulua).

Bigarren talde batean, nazioarteko zuzenbide klasikoaren arabera *stricto sensu* giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimak jasoko ditugu. Kasu horretan, urraketak, zuzenean edo zeharka, herri-agintarien agenteei egotzi dakizkieke, edo urraketa horien ardura botere publikoarena edo Estatuarena izan daiteke.

Gainera, lehenengo edo bigarren taldeko ezaugarriak izanik, Memoria Historikoari buruzko Legearen babespean jasotako giza eskubideen urraketak jaso daitezke.

Azkenik, aurreko kategorietan nekez sailkatu ditzakegun benetako eta bidegabeko sufrimendu larriak izan daitezke, baina justizia-, egia- eta erreparazio-arrazoiengatik, giza eskubideen esparruaren barruan, kasu horien aitorpen publikoa egin nahiko genuke.


“Euskadin indarkeriak eragin dituen giza eskubideen urraketek sortutako sufrimendu bidegabean” babespean, agintari publikoek eta euskal gizarteak lau kategoria horietako biktimak aitortzeko betebeharrak moral eta legala dute, betiere, nahastu gabe baina ezta ahaztu gabe ere, eta uneoro talde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartu eta errespetatuta, oso egoera desberdinak parekatu gabe.

Aitorpen hori giza eskubideen urraketak badirelako kontsideraziotik abiatuta egiten da, eta erabat baztertzeko dugu errealitate hori gatazka politiko batek eragindako bi indarkeriaren arteko borroka gisa aurkeztu nahi duen azterketa (ETA eta Estatuaren, elkarri sufrimendua eragiten diotenak, biktimak sortuz). Teoria horren

arabera, bi indarkeria horiek justifikatuta egongo lirateke, hain zuzen ere, aipaturiko gatazka politikoaren erruz, eta, horrela, ETaren ekintzak legitimoak izango lirateke.

Puntu honetan, berretsi egin behar dugu ETaren indarkeriaren erabateko ilegitimitatea, planteatu daitekeen edozein gatazka politiko gorabehera, izan ere, demokrazian, gatazka horri bide baketsuetatik eta giza eskubideak errespetatzen dituzten bideetatik baino ezin dakioke aurre egin.

Cuadro integral de víctimas de vulneración de derechos humanos y sufrimientos injustos producidos en un contexto de violencia de motivación política en Euskadi



1. Víctimas del terrorismo
2. Víctimas de la violación de derechos humanos con autoría pública
3. Casos recogidos por la Ley de Memoria Histórica
4. Otros sufrimientos injustos

6. BIZITZEKO ETA OSOTASUNERAKO ESKUBIDEA: HAUTATZEKO ARRAZOIAK:

Giza eskubideak zatiezinak izateak ondorengo esan nahi du: “alde batera utzirik eskubideak belaunaldi batenak edo beste batenak diren, nazioarteko ordenamenduak giza eskubidetzat jotako guztiek, denek, osatzen dute pertsonaren duintasuna deituriko mosaikoa, eta ez dago askatasuna zer den ulertzerik, horrekin batera gizarte, ekonomia eta kultur arloko garapena ezinbestean izan gabe; eta alderantziz ere, beste horrenbeste esan behar da”.

Dena den, nahiz eta giza eskubide guztiak zatiezinak, elkarri lotuak eta unibertsalak izan, hala ere, kontuan izanda giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmen adierazgarrietan denetan esaten dela eskubideetako batzuk indargabe utziezinak direla, batzuek diote horiek direla giza eskubideen muina. Baieztapen horren oinarrian, seguru asko, debeku hau dago, alegia, giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenetan jasotako giza eskubide batzuk ezin direla bertan behera utzi; debekatuta dago hori egitea, baita salbuespen-egoeretan ere.

Hori hala izanik, bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea garrantzi eta sentsibiltate berezia izan eta eragiten duten eskubidetzat har ditzakegu, hain zuzen ere indarkeria politikoaren ondoriozko sufrimendu bidegabenez lanean ari garenean.

Lehenago azaldu dugunez, kontua ez da sufrimenduen eta eskubideen urratzeen zerrenda bi eskubide horietara mugatzea, baizik eta azterlan honetan sufrimendu larri horiek hartzea gai nagusitzat, eta beste une baterako uztea urratu diren beste eskubide eta askatasun batzuen azterketa.

6.1. BIZITZEKO ESKUBIDEA

Bizitzeko eskubidea giza eskubideen artean garrantzitsu eta oinarrizkoena dela esan daiteke, bizitza baita gainerako eskubideez gozatzeko baldintza.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aldarrikatuta, eta horietan “berezko duintasuna” eta “gizaki guztien eskubideak berberak eta besterenduezinak direla” aitorturik, Nazio Batuen Batzar Nagusiak, Adierazpen Unibertsalaren 3. artikuluan, bizitzeko eskubidearen erabateko garrantzia aitortu zuen, hauxe baitio: “Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea”.

Horrela, Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoak³ esandako moduan, Adierazpen Unibertsala, Nazio Batuen barruan, lehenbiziko eta oinarrizko urratsa izan zen giza eskubide guztiak, eta bereziki bizitzeko eskubidea, etengabe eta gero eta gehiago babesteko. Bizitzeko eskubidea Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean jaso zen geroago, eta honela dio 6. artikuluan: “Bizitzeko eskubidea gizakiari datzekio”. Artikulu horrek berorrek dio “legeak babestuko duela eskubide hori” eta “Inori ezin izango zaiola bizitza kendu, besterik gabe”.

Esandako guztiaren ondorioz, bizitzeko eskubidea sustatu eta babestea, nazioarteko hainbat tresnen bidez bermatzen delarik, dagoeneko ez da jotzen estatu bakoitzaren barruko jurisdikzioari soilik dagokion gaia, nazioartearen intereseko kontua baizik. Estatuentzat betebeharra da beren jurisdikzioaren barruan estatuaren organoek bizitza errespetatzen dutela ziurtatzea.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak sarritan zehaztu ditu bizitzeko eskubidearen inguruko zenbait kontu. Egoera horretan, eta munduko hainbat lekutan exekuzio sumario eta arbitrarioak askotan gertatzen zirela jakiteak larriturik, eta arrazoi politikoengatiko exekuzioez arduratuta, 1980ko abenduaren 15eko 35/172 ebazpena onartu zuen, eta horren bidez, estatu kideei eskatu zien errespetatzea, gutxienez, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 6, 14 eta 15. artikuluetako xedapenek ziotena; hain zuzen ere bizitzeko eskubideaz eta bidezko epaiketa inpartziala ziurtatzeko bermeez dihardute artikuluko.

Bestalde, Giza Eskubideen lantaldeak⁴ PIDCP⁵ delakoaren 6. artikuluari buruzko 6. Ohartarazpen Orokorrean baieztatzen duenez, eskubide hori ezin da esanahi mugatzailea emanda ulertu, eta beraz, eskubide gorena denez, ezin da inola ere bertan behera uzterik baimendu, ezta nazioaren bizitza arriskuan jartzen duten salbuespenezko egoeretan ere (4. artikulua).

Besterik gabe bizitza kentzetik babestu beharra berariaz aipatzen da 6. artikuluko 1. paragrafoko hirugarren esaldian, eta berebiziko garrantzia du horrek. Lantaldearen ustez, estatu kideek bizitza kentzea eragiten duten ekintza kriminalak saihesteko eta zigortzeko neurriak hartzeaz gainera, estatuko segurtasun-indarrek ere era arbitrarioan hiltzea saihestu behar dute estatu kideek. Estatuko aginteek inori bizitza kentzea oso kontu larria da. Ondorioz, legeen bidez zorrozki kontrolatu eta mugatu behar da zein egoeratan ken diezaioketen agintaritze horiek bizitza pertsona bati.

³ “Exekuzio sumario eta arbitrarioak”, 11. berripapera, OACNUDH.

⁴ Giza Eskubideen Lantaldea aditu independenteek osatutako organoa da, eta estatu kideek Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna betetzen ote duten gainbegiratzen du.

⁵ 61. artikulua. Bizitzeko eskubidea gizakiari datzekio. Legeak babestu egin beharko du eskubide hori. Inori ezin izango zaio bizitza kendu, besterik gabe.

Ohartarazpen Orokor horretan bertan, Lantaldeak dio estatu kideek neurri zehatz eta eraginkorrek hartu behar dituztela pertsonak desagertzea saihesteko. Are gehiago, estatuek bide eta prozedura eraginkorrek izan behar dituzte zehaztuta ustez bizitzeko eskubidea bortxaturik desagertu diren pertsonen kasuak sakonki ikertzeko.

Gainera, Lantaldeak ikusi du bizitzeko eskubidea sarritan oso modu mugatzailean interpretatu izan dela. "Bizitzeko eskubidea gizakiari datzekio" esaten denean, baieztapen hori ezin da era mugatzailean ulertu, eta eskubide hori babesteak estatu kideek neurri positiboak hartzea exigitzen du.

Eskualde mailan, Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak Babesteko Europar Hitzarmenean (1950eko urriaren 4an Europako Kontseiluak onartua, eta orokorrean Giza Eskubideen Europako Hitzarmena izenez ezagutzen dena), bizitzeko eskubidea babesten da, eta horrekin batera, zehazten du bizitza kentzea zein egoeratan ez den izango indarra erabiltzea erabat eta guztiz beharrezkoa dela dioen artikularen kontrakoa⁶. Era berean, 15. artikulua ez du uzten printzipio hori indargabetzen, ezta larrialdiko egoeran egonda ere; salbuespen bakarra gerra garaian gertatutako bidezko ekintzen ondoriozko heriotza da.

Bestalde, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunak, 2. artikuluan, bizitzeko eskubidea arautzen du, eta honakoa dio:

1. Pertsona guztiek dute bizitzeko eskubidea.
2. Ezin izango zaio inori heriotza-zigorra jarri, ez eta hil ere.

Gutunaren 52.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, gutun horretan jasotako eskubideen esanahia eta norainokoa Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak

⁶ 2. artikulua. Bizitzeko eskubidea.

1. Legeak babesten du pertsona orok duen bizitzeko eskubidea. Inori ezin izango zaio bizitza kendu, nahita, non eta ez den epaitegi batek errudunari jarritako heriotza-zigorra betetzeko, legez zigor hori ezarrita duen delitua egiteagatik.

2. Heriotzak ez du artikulua honetan esaten dena urratuko, indarra erabiltzea erabat beharrezkoa izan den kasu batean gertatu bada:

- a) Pertsona bat legez kontrako eraso batetik defendatzeko.
- b) Pertsona bat zuzenbidearen arabera atxilotzeko, eta preso zein legez atxilotutako batek ihes egitea saihesteko.
- c) Errebolta edo altxamendua legeari jarraiki erreprimitzeko.

Babesteko Europako Hitzarmenean ezarritakoen berdinak izango dira, nahiz eta posible izan Batasuneko zuzenbideak babes zabalagoa emateko aukera izatea.

Estatu barruko zuzenbideari begiratzen hasita, Espainiako Konstituzioak ondorengoa dio 96.1. artikuluan: *“Baliozkotasunez eginiko nazioarteko itunak Espainian modu ofizialean argitaratu eta gero, barne-antolamenduaren osagai izango dira. Haien xedapenak indargabetu, aldatu edo eteteko, nahitaezkoa da itunetan euretan ezarritako moduan egitea edo nazioarteko zuzenbideko arau orokorrak betetzea.”*

Baina, gainera, eskubide horiek estatu barneko zuzenbidean ere babesten dira, Konstituzioaren 15. artikulua ondorengoa baitio: *“Denek dute bizitzeko eskubidea eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, eta inori ezin pairaraziko zaio, ezein kasutan, ez torturarik, ez gizatasunaren edo duintasunaren kontrako zigor edo trataturik. Heriotza-zigorra indarrrik gabe geratzen da, zigor-lege militarrek gerraldirako xeda dezaketinari kalterik egin gabe.”*

6.2. OSOTASUN FISIKO ETA PSIKIKORAKO ESKUBIDEA:

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 5. artikuluan haxe esaten da: *“Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratatu latz, anker edo iraingarririk eman ere”*. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenaren 7. artikulua, berriz, ondorengoa dio: *“Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratatu latz, anker edo iraingarririk eman ere. Bereziki, inorekin ez da esperimendu mediko edo zientifikorik egingo, baldin eta halakoak jasan behar dituenak askatasunez ados dagoela adierazten ez badu.*

Giza Eskubideen Lantaldeak 20. ohartarazpen orokorrean, hau da, tortura edo beste tratatu txar edo zigor anker nahiz duintasunaren kontrakoak debekatzeari buruzkoan, argi eta garbi dioenez, ondorengoa da gorago aipaturiko 7. artikulua horren helburua: *“pertsonek duintasuna eta osotasun fisiko eta mentala babestea”*, eta horrekin barera, baieztatzen du 7. artikulua horrek ezin duela inolako mugarik izan, eta ezin dela inoiz ere indarrrik gabe utzi.

Hala ere, lantalde horrek berak aipaturiko ohartarazpen orokorrean esaten duen moduan, *“Hitzarmenean ez dago inolako definiziorik 7. artikuluan jasotzen diren kontzeptuak azaltzeko, eta lantaldearen ustez ere ez da beharrezkoa debekatutako tratatu txarren zerrenda bat egitea, ez eta bereizketa zehatzak egiten hasia zigorren edo tratatu txarren moten artean; tratua nolakoa den, zein helburu duen eta zenbateraino den gogorra, horrek eragiten ditu bereizketak”*.

1975. urtean, abenduaren 9ko 3452 (XXX) Ebazpenak pertsonak tortura edo beste tratatu edo zigor latz, anker nahiz iraingarrien aurkakoetatik babesteko Adierazpena

onartu zuen, eta horrek gerora 1984ko Konbentzioa⁷ izenaz ezagutuko zenaren oinarriak jarri zituen. Bada, Konbentzio horren 1. artikuluan honela definitzen da tortura: “pertsona bati min edo sufrimendu larria, dela fisikoa zein mentala, nahita eragiten dion ekintza oro, pertsona horrek edo beste batek informazioa ematea edo aitorpen bat egitea lortzeko, edo egindako nahiz egin duela uste den zerbaitengatik zigortzeko, edo pertsona hori nahiz beste batzuk beldurrarazteko edo zerbaitetara behartzeko, edozein eratako bereizkerian oinarritutako edonolako arrazoia dela-eta, eta min edo sufrimendu horiek funtzionario publiko batek edo funtzio publikoak betetzen ari den beste pertsona batek eragiten dituenean, hark bultzaturik edo haren oniritziarekin”.

Nahiz eta 1984ko Konbentzioan ez diren tratu anker nahiz iraingarriak definitzen, egile askok adierazi dute⁸ sufrimenduaren larritasuna, hau da, eragindako sufrimenduaren intentsitatea izango dela osagai erabakigarria; eta ondorio horretara heltzen da Konbentzioaren 16.1. artikulua irakurrita, hauxe baitio: estatu kide orok debekatzeko konpromisoa hartzen du, bere jurisdikziopeko edozein lurraldetan, tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarriak eragiten dituzten bestelako egintza batzuk, nahiz eta halakoak tortura ez izan, 1. artikuluan definitutakoaren arabera, baldin eta egintza horiek funtzionario publiko batek edo eginkizun ofizialak betetzen dituen beste pertsona batek gauzatzen baditu, edo halakoek bultzatuta edo halakoen baimenarekin edo oniritziarekin dihardutenek burutzen badituzte. Bereziki aplikatuko dira 10, 11, 12 eta 13. artikuluetan aipatutako betebeharrak, eta torturari egindako erreferentziak bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarriei egindakoekin ordeztuko dira.

Dena den, Giza Eskubideen Europako Auzitegia⁹ izango da, 1950eko urriaren 4an Erroman Europar Kontseiluak sinaturiko Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak Babesteko Europar Hitzarmenaren 3. artikulua interpretatzeko orduan, erakutsiko duena sufrimenduaren intentsitatearen irizpidea erabakigarria izango dela jarrera batzuen eta besteen artean bereizteko.

⁷ Torturaren eta beste tratu edo zigor latz, anker edo iraingarrien aurkako Nazioarteko Konbentzioa, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 1984ko abenduaren 10ean onartua.

⁸ Ikus bitez, esate baterako, “El concepto de tortura y de otros tratos crueles, inhumanos o degradantes en el derecho internacional de los derechos humanos” Gonzalo Bueno, “Nueva Doctrina Penal”-en argitaratutako artikulua, 2003/B, Editores del Puerto, Buenos Aires; edo “La Tortura y los Tratos Inhumanos y Degradantes como consecuencia de algunas prácticas de lucha contra el terrorismo” Ana I. Pérez Machío; 2008. urtean amaitutako artikulua eta CONSOLIDADO izeneko Ikerketa taldeak argitaratua, kode honekin: GICCAS IT-383-07.

⁹ Ikus bitez, beste batzuen artean, epai hauek: Irlanda Erresuma Batuaren aurka, 1978ko urtarrilak 18; Tomasi Frantziaren aurka, 1992ko abuztuak 27; Ribitsch Austriaren aurka, 1995; Labita Italiaren aurka, 2000; Berktaý Turkiaren aurka, 2001; Martínez Sala eta beste batzuk Espainiaren aurka, 2004ko azaroak 2; Ramírez Sánchez Frantziaren aurka, 2005; Olaechea Cahual Espainiaren aurka, 2006; Scoppola Italiaren aurka, 2008; Nyanzi Erresuma Batuaren aurka, 2008; Tatan Turkiaren aurka, 2008; Trajkoski Jugoslavia ohiko Mazedonia Errepublikaren aurka, 2008.

3. artikulua horrek ondorengoa dio: “Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu anker nahiz iraingarri eman ere”. Erreferentziatzen Barcelona irakasleak¹⁰ egiten duen Europako jurisprudentziari buruzko azterlana hartuta, 3. artikuluan aipatzen diren araugintzako kontzeptuen esanahiaren interpretazioa ondorengoa da:

“**Tratu iraingarriak**”: “Egileek azpimarratzen dute tratu (edo zigor) iraingarria kontzeptua, tradizionalki irain eta umiliazioaren ingurukoa izan dela, sufrimendu edo min fisikoari loturikoa baino gehiago” (...) Estrasburgoko Auzitegiaren arabera –Berktaş Turkiaren aurkako Epaia (2001)–, tratu iraingarriaren ezaugarri nabarmena biktimengan beldur-, larritasun- eta gutxiespen-sentimendua eragiteko duen gaitasuna da, horrek umiliatu eta estimua galaraztea eragin diezaiekeelako. (§ 164).

Barcelona irakasleak adierazten duenez, gakoa da Auzitegiak esatea demandatzailearen aurka indar fisikoa erabili zela, nahiz eta bere jarreragatik beharrezkoa izan ez (§ 55), hori egitea giza duintasunaren aurkakoa dela, eta, printzipioz, horrek Hitzarmenaren 3. artikulua urratzea dakarrela (§ 57). Hori esanda, Auzitegia doktrina jakin bat indartzen ari zen, eta horren arabera, indarkeria justifikaziorik gabe erabiltzea berez norbait zaintzeko edo norbaiti askatasuna kentzeko egoerak ez direnetan (esate baterako errepideko kontrol bat), Hitzarmenaren aurkakoa izango litzateke, hala nola gertatzen baita geldirik dagoen pertsona baten aurka indarra erabiltzen denean, pertsona hori (esate baterako, atxilotu bat) agente publikoen erabateko kontrolpean dagoenean.

“Auzitegiak nabarmendu nahi izan du pertsona baten aurka, berez eta besterik gabe, indarra erabiltzea, inguruabarrak dena delakoak izanik ere, eta erabilitako indarra dena delakoa, gertakari hori, *per se*, Hitzarmenaren 3. artikuluen aurkakoa dela”.

“**Tratu ankerrak**”: Lehenago aipatutako epai bera erreferentziatzen hartuta –Berktaş Turkiaren aurka (2001)–, Auzitegiak esan zuen biktimak tratu ankerrak jasan zituela. Auzitegiak, *ad hoc* arrazoibidea eman aurretik, aldeztu aurretik egindako gogoeta orokorretan, tratu ankerren eta tratu iraingarrien arteko bereizketa egiten du, eta iraingarriari emandako ezaugarriak kontuan izanda (biktimengan beldur-, larritasun- eta gutxiespen-sentimendua eragitea, eta horren ondorioz, umiliatu eta estimua galaraztea), eta momentu batean ere ez duenez tortura hitza aipatzen kasu horretan, uste izatekoa da gertakari horiek tratu ankerren barruan sartzen dituela, honela ulertuta: aurrez pentsatuta, ordu askotan egiten direnak eta, nahiz eta benetako lesiorik sortu ez, gutxienez sufrimendu fisiko eta moral biziak eragiten dituztenak (§164). Devrim Berktaş-k lesio fisiko garrantzitsuak izan zituen, eta ondorioz, begi bistakoa da jasan zituenak tratu iraingarriak baino zerbait gehiago izan zirela...”

¹⁰ “La garantía europea del derecho a la vida y a la integridad personal frente a la acción de las fuerzas del orden”, Javier Barcelona Llop, argitaletxea: Thomson Civitas 2007, (303tik 323ra arteko orrialdeak).

Beraz, **tortura**, jurisprudentziak izan duen bilakaera kontuan izanda, honela definitzen da: tratu ankerren forma larriagoa da, nahita eragindakoa, eta horren bidez, agintaritza edo funtzionario publiko batek min edo sufrimendu larria eragiten dio pertsona bati, informazioa lortu, zigortu edo beldurrarazteko.

Estatuko ordenamenduan tortura nola araututa dagoen ikusteari dagokionez, aurreko paragrafoan esandakoaz gainera, merezi du berariaz aipatzea Zigor Kodean nola arautzen den; izan ere, beste batzuen artean Amnistia Internazionalak adierazi duenez, nazioarteko hainbat hitzarmenetan ezarritakoa ez bezala, Zigor Kodean torturaz ematen den definizioa ez dator guztiz bat giza eskubideei buruz nazioarteko zuzenbidean ezarritako parametroekin.

Zigor Kodearen 174. artikulua, 15/2003 Lege Organikoaren bidez aldatu ostean, ondorengo egintzak ere gehitzen ditu: “edo edozein arrazoi dela-eta, era bateko edo besteko bereizkerian oinarrituta”; eta hori erantsita, honela dago idatzita artikulua osoa:

a) Agintari edo funtzionario publikoak tortura egiten du, bere karguaz abusatuz, pertsona baten aitortza edo informazioa lortzeko helburuarekin edo pertsona horrek gauzatu duen edo gauzatu duela susmatzen den egitatearengatik, edo edozein arrazoi dela-eta, era bateko edo besteko bereizkerian oinarrituta, zigortzeko helburuarekin, pertsonari baldintzak edo prozedurak ezartzen dizkionean, beren izaera, iraupena edo bestelako inguruabarren ondorioz, gorputzeko edo buruko sufrimenduak eragiten dizkiotenak, ezagutu, bereizi edo erabakitzeko ahalmenak ezabatu edo gutxitzen dizkiotenak, edo beste edozein modutan pertsonaren osotasun moralaren aurka atentatu egiten dutenak. Torturaren errudunari 2 urtetik 6ra arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio atentatua larria bada; bestela, urtebetetik hiru urtera artekoa. Edozein kasutan, adierazitako zigorrez gain, erabateko desgaiakuntza-zigorra ezarriko zaio, zortzi urtetik hamabira artekoa.

b) Zigor berberak ezarriko zaizkio, hurrenez hurren, espetxeetako edo adingabeen babes-etxe nahiz zentzokietako agintari edo funtzionarioari, aurreko paragrafoan azaldutako egitateak gauzatzen baditu atxilotu, barnerratu edo presoekin.”

Kontuan izan behar den arren txosten honetan jasotzen diren gomendio eta neurriek torturen biktimak ere barne hartzen dituztela, garrantzitsua da gogoraraztea gomendio zehatzak daudela torturaren gaiaren inguruan, eta horiek ere gogoan hartu beharrekoak direla.

90eko hamarkadaren erdialdetik, Nazio Batuek giza eskubideak babesteko dituzten bide eta prozedura bereziak eta hitzarmenak kontrolatzeko organoek ateratako ondorioak eta emandako gomendioak bat datoz eta ia errepikakorrek dira ondorengo esateko orduan: legegintza eta administrazio arloko neurriak eta neurri operatiboak hartu beharra dago, tortura eta beste tratu anker eta/edo iraingarri

batzuk erabat eta guztiz debekatzearen aldeko nazioarteko betebeharrak modu egokian betetzeko¹¹.

Gomendio horiek bat datoz Álvaro Gil Robles-ek, Europako Kontseiluaren Giza Eskubideen komisarioak, egindako adierazpenekin, arduratuta agertu baitzen 2005eko martxoan Espainiara egindako bisitaren ostean idatzitako txostenean¹²; izan ere, tortura eta tratu txarren inguruan, ondorengoa gomendatu zuen, hitzez hitz:

"Azkar, zorrotasunez eta zehaztasunez ikertzea ustezko tortura eta tratu txarren salaketa guztiak, bai eta komisaldegi, Guardia Zibilaren kuartel eta Poliziaren beste egoitza batzuetan gertatutako atxilotuen heriotza guztiak. Beharrezkoa balitz, jarri beharreko diziplina-zehapenak eta zigorrak jarri beharko lirateke. Prozedura egokiak ezarri behar dira ustezko tratu txarrak direla-eta atxilotze-gune, komisaldegi edo Guardia Zibilaren kuartel bateko funtzionarioen aurka jarritako salaketak ez ditzaten soilik gaiarekin lotuta daudenek ikertu, eta ez dezaten, izatekotan, horiek zuzenean erantzun, baizik eta ikuskatzeetan espezializatutako beste zerbitzu batzuek, ikertzen ari diren gertakariekin zerikusirik ez dutenak, eta goragoko agintarien kontrolpean." Era berean, 5. gomendioak ondorengoa dio: *"Beharrezko bideak ezarri beharko dira torturak edo tratu txarrak jasan dituztenei ordaina emateko, horretarako egin beharreko lege-aldaketak eginda"*.

Gai horri lotuta, derrigorrezkoa da berriki eman diren bi ebazpen judizial aipatzea, gai honen inguruan oso garrantzi handia baitaude. Hasteko, 2010eko irailaren 28ko epaia dugu, Giza Eskubideen Europako Auzitegiarena, 2507/07 Errekurtsoa zela eta emana; epaiak Espainia kondenatu zuen Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 3. eta 13. artikulua urratzeagatik, salatzaileak salatzen zituen tratu txarrak ez ikertzeagatik. Bigarren lekuan, Konstituzio Auzitegiak 2010eko urriaren 18an emandako epaia dugu, 9398/2005 zenbakidun babes-errekurtsoaren inguruan; epaiak tratu txarren salatzaile batek eskatzen zuen babesa onartu zuen, Auzitegiak uste baitu instrukzioaren ardura izan zuen epaitegiak ez zuela behar beste ikertu, modu nabarmenean, eta kasua frogatu jakin batzuk egin gabe itxi zuela; hori dela-eta, kasua berriz irekitzeko agindu zuen.

¹¹ Modu berezian nabarmendu nahi dira ondorengo ondorio eta gomendioak:

- OACDHNU-k gertatutako informazio-bilduma, Espainiarentzat Giza Eskubideen Kontseiluak egin, Aldizkako Azterlan Unibertsalaren kariatara. A/HRC/WG.6/8/ESP/2, 2010eko otsailak 22.

- Nazio Batuetako Torturaren aukako Lantaldeak egindako azken ohartarazpenak, Espainiak aurkeztutako aldizkako bosgarren txostenari buruz. CAT/C/ESP/CO/5, 2009eko azaroak 19.

Terrorismoaren kontrako borrokan giza eskubideak sustatu eta babesteko Nazio Batuen errelatore bereziak idatzitako txostena; Martin Scheinin, A/HRC/10/3/Add.1, 2009ko otsailak 24.

- Torturari buruzko errelatore bereziaren txostena; Theo Van Boven, E/CN.4/2004/56/Add.2, 2004ko otsailak 6.

¹² - Álvaro Gil Robles-ek, Giza Eskubideen komisarioak, idatzitako txostena, 2005eko martxoaren 10etik 19ra bitartean Espainiara egindako bisitan; ministroen lantaldeari eta Legebiltzarrari zuzendua. CommDH (2005)8, Estrasburgo, Azaroaren 9an.

Bi ebazpen judizial horiek norabide bera jarraitzen dute: justizia-auzitegietan tratatu txarren edo torturen salaketak egiten direnean, horiek ikertzeko ahalegina handiagotu egin behar da, hain zuzen ere gorago aipaturiko nazioarteko erakundeek emandako gomendioek diotenaren bidetik.

Kontuan izan behar da tortura-salaketak izan diren kasu askotan, ikerketak aurrera eramateko prozesuetan hutsuneak edo gabeziak izan direnez, ezin izan direla kasuak behar besteko sakontasunez aztertu.

Dena den, terrorismoaren aurkako borrokaren testuinguruan, eta torturaren arazora behar bezala hurbiltzeko kalte egiten duen osagaia den neurrian, beste modu batean hartu behar da kontuan ETAk eta bere inguruak erabilitako jarraibidea, kideren bat atxilotzean sistematikoki "torturak" salatzea.

Egia da giza eskubideak babesteko nazioarteko erakundeek idatzitako txostenetan erakutsi dutela Espainiako estatuak zer nolako ahaleginak egin dituen, bereziki demokrazia ezarri eta gutxika-gutxika sendotzen joan den neurrian, terrorismoaren aurkako borrokagatik hartutako politika eta neurrien ondorioz giza eskubideen errespetua zalantzan ez jartzeko. Horren erakusle dira, berriki, torturaren aurkako errelatore bereziak 2003an egindako bisitaren txostenak, eta terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak sustatu eta babesteari buruzko errelatore bereziak bost urte geroago, 2008an, egindako bisita. Lehen kasuan, tratatu txarrak nahiz eta erregularki ez gertatu, ezin baziren ere noizean behingo gertakaritzat ere jo, bigarreanean, arlo horretan praktika "egoki" batzuk hartu direla azpimarratzen da.

7. KATEGORIAK

Txosten honetan jaso eta aitortpena egin nahi zaien biktimak hurrengo kategorietakoren batean sartzen direnak izango dira:

- Bizitzeko eskubidea urratu zaion biktima.
- Osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea urratu zaion biktima.
- Bizitzaren edo osotasun fisiko edo psikikoaren aurkako beste sufrimendu larri eta bidegabe batzuen biktimak.

Zehaztu diren kategorია horiei loturik, eta edukia zein den hobeto ulertzeko, beharrezkoa iruditzen zaigu kontu batzuk argitzea:

- Bizitzaren edo osotasun fisiko edo psikikoaren aurkako **sufrimendu larri eta bidegabeak**. Nahiz eta eskuartean dugun informazioarekin ezin den baieztatu Estatuko Segurtasun Indarretako kide batzuen jardunaren eta eragindako sufrimenduaren arteko lotura zuzena dela, publikoki aitortu nahi da egoera hori, giza eskubideen esparruaren barruan, pertsonen arteko eta gizarteko harremanak berreraikitzen lagundu eta gure arteko elkarbizitza hobetzeko asmoz.

Terrorismoaren biktimak: kategoría dena delakoa izanik ere, egilea izan zena izateagatik terrorismoaren biktimen legean ezartzen den definizioaren barruan sartzen diren kasuak legean bertan ezarritako bideetatik aitortuko dira halakotzat; hori da txostenak gomendatzen duena.

- **Memoria Historikoaren Legea:** abenduaren 26ko 52/2007 Legeak, gerra zibilean edo diktaduraren garaian jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta aldeko neurriak ezartzen dituenak, pertsona horiei ordaina emateko zenbait neurri zehaztu zituen biktima mota batzuentzat, eta neurriok gorago aipaturiko kategoría horien barruan sartzen dira.

Kasuak aztertzerakoan, eta aitortpena egin eta ordaina emateko neurriak ezarri ahal izateko, aitortpen hori lortzea izan duten biktimek txosten honetan proposatzen diren neurriez baliatzeko aukera ere izango dute, eta gainontzeko kasuen baldintza beretan egingo da hori; kontuan izan beharreko gauza bakarra ordura arte ordainik jaso ote duten jakitea izango da, bestelako kalte-ordain berririk zehaztu beharko balitz ere.

Agindutako lanaren barruan, Giza Eskubideen Zuzendaritzak 2008ko ekainean idatzitako txostenean jasotako kasuen zerrenda aztertu da, eta aurrerago ere jo da, administrazioko, epaitegietako, bibliografiako eta kazetaritzako hainbat informazio-iturritan bila ibilita.

Azterlan horrek, nahiz eta behar bezain zehatza eta zorrotza izan ez, garbi erakutsi du sufrimendu bidegabeak izan direla giza eskubideak urratzearen ondorioz, Euskadin bizi izandako indarkeria-egoeran sortuak, eta egoera horren ezaugarriek eta zenbaterainokoak justifikatu egiten dute Legebiltzarrak 2009ko abenduak akordioaren bidez eskatutako aitorpen- eta erreparazio-prozesua.

Hori hala izanik, metodologia logikoa jarraituz gero, hurrengo urratsa eskumena duen organoak azkenean ezarriko dituen neurri konkretuak, biktimei ordaina ematekoak, zein izango diren zehaztea izango litzateke; kasu honetan Eusko Legebiltzarra genuke organo eskuduna, eta txosten honetan bertan izango luke gaiaren inguruko alde aurretiko proposamena.

Begi bistakoa da ez dela mintzagai ditugun giza eskubideak urratu zaizkien kaltetuen inolako eroldarik behar, kalte horien ordainak zein diren zehazteko; kontrakoa esango genuke, alegia, neurri horiek onartu ostean, kaltetutako pertsonak izan beharko dira kasuan kasuko espedientea izapidetzen hasiko direnak, formalki biktima gisa aitor ditzaten, hain zuzen ere horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela behar bezala egiaztatu ostean.

Txostenean bertan kasuen zerrenda bat jasotzea, kasuan kasuko identifikazio eta guzti, arriskutsua izango litzateke, hori hala egiteak zer nolako balio juridikoa duen zalantzan egongo litzatekeelako.

Azken batean, proposatzen den metodologia terrorismoaren biktimen kasuan edo Memoria Historikoaren Legean jasotako kalteordainek eragiten dieten pertsonen kasuan erabilitakoaren berdina da.

Hori hala izanik ere, zalantzarik gabe gobernuak konpromiso irmoa eta gogotsua erakutsi du ezagutzen diren kasu zehatz guztiak ikertzen jarraitzeko, 2008ko txostenean jasotako zerrenda oinarri hartuta, unea iristen denean proposatzen diren eskaera guztiez modu egokian ebatzea errazagoa izan dadin.

8.- GOMENDIOAK

8.1.- NAZIOARTEKO ESPARRU OROKORRA: GIZA ESKUBIDEEN URRATZE LARRIAK JASAN DITUZTEN BIKTIMEN ESKUBIDEEI BURUZKO OINARRIKO PRINTZIPIO ETA JARRAIBIDEAK:

Gaiari buruzko adituak diren hainbat egilek adierazi duten moduan¹³, eta Nazio Batuek giza eskubideak babestearen arloan dituzten tresnetan jasota dagoenez, biktimen ikuspegia oinarrizko osagai bihurtu da giza eskubideen urratze larri eta sistematikoak gertatu diren kasuetan gaiari heldu eta erantzuna eman nahi zaionean; eta horrek aldaketa ekarri du indarrean zegoen ikuspegiaren, tradizionalki estatuak eta eskubideen urratzaileek izaten baitzuten protagonismoa. Ikuspegiaren aldaketa horren bidez, benetan “biktimen kultura” dei genezakeena ari da sortzen, eta ospea duten iturri batzuk esaten ari direnez, bide horretatik “memoriaren kultura” bat eraiki beharra ere gero eta garbiago ikusten da, gaur egungo belaunaldiek etorkizuna eraikitzean iraganen gertaturikoa errepika ez dezaten. Gainera, biktimei begiratzen dien ikuspegia hartuta, nazioarteko komunitateak biktimekiko elkartasuna berresten du, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauetan jasotako arauak urratu zaizkien biktimekiko elkartasuna, eta baita gizateria osoarekikoa ere.

90eko hamarkadaren hasieratik, erreparazioa jasotzeko eskubidea juridikoki eta kontzeptualki zer den zehazteko prozesuan, Nazio Batuek aurretik joan dira, eta erreparazioaren kontzeptua esanahi zabala emanda ulertu da, diru-ordaina baino zabalago hartuta; ordain integralerantz jo nahi izan da, materialak ez diren ezaugarriak ere kontuan hartuta, ezaugarri horiek nabarmenagoak baitira giza eskubideak modu larrian urratu izan diren kasuetarako erreparazioa bilatzeko prozesuetan. Kontuan izan behar da halakoetan helburua ez dela soilik biktima zehatzari dagokiona ematea, gizarte osoari ordaina ematea eta berradiskidetzea lortzea baizik.

Era berean, esan dezakegu giza eskubideak modu larrian urratu dizkieten pertsonen eskubideak hiru puntutan oinarritzen direla: egia jakiteko eskubidea, justizia izateko eskubidea eta erreparazioa jasotzeko eskubidea. Inpunitatearen aurkako borrokan hiru eskubide horiek elkarri loturik daudela eta osagarriak direla modu zabalean onartzen dute doktrinak, nazioarteko eta eskualde mailako tresnek, eta baita estatu batzuetako zuzenbideak berak ere.¹⁴

¹³ Hemen Felipe Gómez irakaslearen lana nabarmendu nahi genuke, berak zuzendu baitu “*El Derecho a la Memoria*” izeneko ikerketa, gerora izen bereko liburu bihurtua (Bilbo, 2006ko urtarrila); txosten hau idazteko orduan, erreferentzia gisa erabili dugu.

¹⁴ Ejemplo imprescindible es la Ley 4/2008, de 19 de junio de reconocimiento y reparación a las Víctimas del Terrorismo.

Atal honetan, ondorengo printzipioetan esaten dena hartuko dugu oinarri gisa: Batetik, *Giza eskubideen gaineko nazioarteko arauen ageriko urraketak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak jasan dituzten biktimek errekurtsoak jartzeko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarrizko printzipio eta arauak ditugu*¹⁵ (aurrerantzean Oinarrizko Printzipio eta Jarraibideak deituko ditugu); eta, bestetik, *Inpunitatearen aurka borroka eginda giza eskubideak babestu eta sustatzeko printzipio multzo eguneratua*¹⁶, (aurrerantzean Printzipioen Multzoa deituko duguna).

Printzipio eta jarraibide horiek ez dute betebeharr juridiko berririk sortzen ez nazioartean ez estatuen barruan; giza eskubideei buruz nazioarteko arauetan esaten denaz bat, betebeharr juridikoak betetzeko tresna, aukera, prozedura eta metodoak zein diren esaten dute.

- Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauetan esaten dena errespetatu, errespetatuko dela ziurtatu eta aplikatzeko betebeharra

Oinarrizko printzipio eta jarraibideen arabera, betebeharr horrek ondorengoak hartzen ditu bere baitan, beste batzuen artean:

- a. Neurri egokiak hartzea eskubideak urratzea galarazteko.
- b. Eskubideen urratzeak eraginkortasunez, azkar eta osorik ikertzea, eta beharrezkoa bada, ustezko arduradunen aurkako neurriak hartzea, estatuko eta nazioarteko araudiaz bat.
- c. Giza eskubideak urratu zaizkiela dioten biktimei justizia eskueran jartzea, berdintasunez eta eraginkortasunez, alde batera utziz zein izango den, azken batean, urratzearen erantzule.
- d. Biktimei baliabide eraginkorrak ematea, eta baita ordaina ere.

Gainera, printzipio horiek diote biktimak gizatasunez tratatu behar direla, haien duintasuna eta giza eskubideak errespetatuta, eta beharrezko neurri egokiak hartu beharko direla biktimon eta senitartekoen segurtasuna, ongizate fisiko eta psikologikoa eta intimitatea bermatzeko.

- Biktimak baliabideak izateko duen eskubidea

Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak nabarmen urratu izanaren aurka erabiliko diren baliabideen artean, biktimak ondorengo eskubideak izango ditu, nazioarteko zuzenbidean esaten denaz bat:

¹⁵ Giza Eskubideen Batzordearen apirilaren 19ko 2005/35 Ebazpena, Batzar Nagusiak 2005eko abenduaren 16an onartua, 60/147 Ebazpenaren bidez.

¹⁶ Diane Orentlicher andrearen txostena; aditu independentea da, eta bere ardura izan da inpunitatearen aurkako borrokan erabiliko diren printzipioak eguneratzea. E/CN.4/2005/102/Add.1, 2005eko otsailak 8.

a. Justizia berdintasunez eta benetan eskueran izatea (Justizia eskubidea):

Eskueran izatea esaten denean, baliabide judizialak benetan eskueran izatea, baina beste administrazio-organo batzuekin eta antzekoekin ere beste horrenbeste gertatzea esan nahi da, eta baita estatu barruko zuzenbidean erabiltzen diren bideak, modalitateak eta prozedurak ere eskueran izatea. Horretarako, estatuok ondorengo egin beharko dute: eskura dauden baliabide guztien berri eman; biktimak eta senitartekoak babesteko neurriak hartu; laguntza egokia eskuratu ahal izatea erraztu, prozedurak jarri biktimen taldeek erreparazio-eskaerak aurkezteko eta ordaina eskuratzeko aukera izan dezaten, dagokionaren arabera; eta prozesu judizialean kaltetutako alde guztiek eta interes legitimoa duten pertsona edo erakunde guztiek parte hartu ahal izatea bermatzea.

Baina biktimei justizia eskueran izateko aukera eskaintzeaz gainera, justizia-eskubidea benetakoa izan dadin, estatuak hartu beharreko neurriak muturreraino eraman behar dituzte, giza eskubideak larriki urratzen direnetan inpunitaterik izan ez dadin, ikerketei berehala eta zehaztasunez ekinda.

b. Jasandako kalteagatik modu egokian, benetan eta azkar ordaina jasotzea (Ordaina jasotzeko eskubidea)

Kasu bakoitzean gertaturiko inguruabarrak kontuan izanda, eta estatu barruko zuzenbideaz eta nazioarteko betebeharrak juridikoez bat, giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak nabarmen urratu dizkieten biktimei, azkar eta eraginkortasunez, ordain integrala eman beharko litzaieke; era guztietako ordainak sartu beharko lirarteke hor, eta baita, beti, ordain moralala ere.

c. Eskubide-urratzeaz eta erreparazioa jasotzeko bideez informazio egokia eskueran izatea (Egia jakiteko eskubidea):

Gizarte osoari orokorrean, eta giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak nabarmen urratu dizkieten biktimei bereziki, ondorengo gaiei buruzko informazioa emateko bideak jarri behar dituzte estatuak: printzipio eta jarraibide hauetan zehazten diren eskubide eta baliabideei buruzkoa, eta zein zerbitzu jasotzeko eskubidea duten arlo juridikoan, medikuntza, psikologia, gizarte, administrazio nahiz beste arlo batzuetan.

Egia jakiteko eskubideak bilakaera nabarmena izan du azken urteetan, nazioarteko zuzenbidearen baitan. Hala erakusten du, esate baterako, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioak egia jakiteko eskubideari buruz

aurkezturiko azterlanak, hain zuzen ere Nazio Batuen Giza Eskubideen 62. batzordean aurkeztutakoak. Azterlan horren ondorio eta gomendioetan, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioak dio, beste batzuen artean, egia jakiteko eskubidea estatuak giza eskubideak babestu eta bermatzeko duten betebeharrarekin loturik dagoela, eta baita giza eskubideen urratze nabarmenak eraginkortasunez ikertzeko duten betebeharrarekin nahiz baliabide eraginkorrak jarri eta ordaina emateko duten betebeharrarekin loturik ere. Era berean, ondorengo kontuekin ere lotura zuzen-zuzena du: zuzenbide-estatuarekin, eta gardentasun- eta erantzukizun-printzipioekin nahiz gizarte demokratiko batean gai publikoak ondo kudeatzea eskatzen duen printzipioarekin.

8.2. ERREPARAZIORAKO PROZESU BATI EKITEKO NEURRIEN PROPOSAMENA

Nahiz eta nazioarteko, eskualdeetako edo kasu batzuetan estatu barruko zuzenbidean ezarritako betebeharrak oso garbiak izan gutxieneko betekizunak zein diren zehazteko orduan, pertsona guztien giza eskubide guztiak errespetatuko direla bermatzea nahi badugu, nazioartean izandako hainbat esperientzia aztertu ostean ateratzen den ondorioa da betebeharrak horiek gauzatzeko moduak askotarikoak direla.

Nazio Batuen idazkari nagusiak berak esan du “formula bakarrarekin, guztientzat berdinak diren formulekin, ez aritzen ikasi behar dugula, kontua ez dela ereduak inportatzea”; azpimarratu du “prefabrikatutako irtenbideak ez direla gomendagarriak”¹⁷.

Erreparaziorako programa bat diseinatu eta garatzea prozesu zabala izango da, eta asko iraungo du¹⁸. Atal honetan, proposamen zehatz batzuk egiten dira prozesu horri ekiteko, ondorengo neurrien bidez:

- **1.- Erakundeetako administrazio-gune bat** sortzea, txosten honetan esaten dena bete ahal izateko hartu beharreko neurriak diseinatu, betearazi, jarraipena egin eta gainbegiratzeko. Administrazio-gune hori gaiari heltzeko propio sortuko den gune berria, edo dagoeneko badiren beste batzuen eginkizunak zabaltzearen ondoriozkoa izan daiteke.

Beste eginkizun batzuk izatea ere gerta daitekeen arren, administrazio-gune horren helburu nagusia ondorengoa izango da: Euskadin bizi izandako indarkeriaren ondorioz giza eskubideak urratzeagatik sufrimendu bidegabeak

¹⁷ S/2004/616

¹⁸ Beste agiri batzuen artean, ondorengoa gomendatzen da erreferentzia gisa hartzeko: “Zuzenbide estatuak dituen tresnak gatazka batetik irten duten gizarteentzat: Erreparaziorako programak”. Nazio Batuen Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoak idatzia, eta 2008an argitaratua.

jasan dituzten biktimei eragin zaien kaltea aitortzea eta horren ordaina ematea.

- 2.- Aipatu diren bide guztiak martxan jartzeko, onartu beharreko **arauak onartzea**.
- 3.- **Aurrekontuan behar beste diru jartzea**, hartu behar diren neurriak aurrera eramateko, beharrezko baliabide material eta giza baliabideak egon daitezen, eskumenak modu egokian bete ahal izateko.
- 4.- **Adierazpen publiko instituzionala**, emango diren urratsen berri azaltzeko; aitortza publikoaren lehen pausoa izango litzateke.”.

Neurri horiek guztiek biktimentzat eskueran egon behar dute, eta horretarako, informazio egokia eman eta hedabideen bidez jakinarazteaz gainera, biktimek prozesu osoan zehar sarbidea izan beharra daukate. Hori posible izan dadin, sarbidea izateko jarriko diren baldintzak, zorrotzak izateaz batera, behar besteko malgutasuna dutenak ere izan beharko dute, aitortza merezi duen biktimarik kanpoan gera ez dadin.

9. ONDORIOAK:

9.1. Txosten honekin 2009ko abenduaren 22an Legebiltzarrak agindutakoa betetzen da.

9.2. Aipagai dugun aldiaren jasandako giza eskubideen urratzeen diagnostiko osoa egin nahi bada, oso ezberdinak diren errealitateak berdintzeko diskurtsorik egin gabe, eta are gutxiago giza eskubideak urratzea zuzitzea inondik ere nahi izan barik, ondorengo biktimak hartu behar dira kontuan: terrorismoaren biktimak, agente publikoek zuzenean edo zeharka eragindako urratzeen biktimak, Memoria Historikoaren Legean aipatzen diren abusuen biktimak, eta beste sufrimendu larri eta bidegabe batzuen biktimak; azken horiek, nahiz eta *stricto sensu* aurreko multzoetako batean ere sartu ez, diagnostikoa osatzeko kontuan hartu behar dira, betiere Legebiltzarraren aginduaren asmoa sufrimendu bidegabe guztiak aitortzea bada, eta azkenean, euskal herritar guztien arteko elkarbizitza hobetzea lortu nahi bada.

9.3. Txosten honek bizitzeko eskubidea eta osotasunerako eskubidea agente publikoek haien eginkizunak betetzen ari zirela urratu dizkieten biktimak ditu oinarri. Terrorismoaren biktimek eta memoria historikoarekin zerikusia duten biktimetako batzuek dagoeneko ezagunak diren beste erantzun publiko batzuk jaso dituzte.

9.4. Txosten hau denbora-tarte oso zabal bati buruzkoa da, eta horren barruan, oso ezaugarri ezberdinetako aldiak sartzen dira: demokrazia aurreko estatu batean edo estatu diktatorial batean hasi, trantsizio konplexu eta zailarekin segi, eta zuzenbidean oinarrituriko estatu demokratiko batean (Europar inguruan dituen beste batzuekin alderatzeko modukoa) amaitzen da. Kontua ez da ukatzea azken aldi horretan giza eskubideen arloko arazoak egon direnik, baizik eta zorrotasunez neurtzea une bakoitzean izandako gertakarien kopurua eta tipologia eta egoera hori ezartzea adosten diren erreparazio-neurrietan isla izan dadin. Esandakoaren ondorioz, txosten honen helburu nagusiak ondorengoak dira:

- a) Francoren diktaduraren testuinguru historikoan, 1968ko urtarriletik 1977ko urrira bitartean, giza eskubideak urratu zizkieten biktimak.
- b) Demokraziaren lehen urteetako testuinguru historikoan hasi eta laurogeiko hamarkadaren bigarren erdira arte, Euskadin bizi izandako jatorri politikoko indarkeriaren ondorioz giza eskubideak urratu zizkieten biktimak.

c) Laurogeiko hamarkadaren erdialdetik gaurdaino, indarkeria politikoaren ondorioz izandako biktimatzat hartuak ez izan arren, giza eskubideak urratu zizkieten biktimak.

d) Beste sufrimendu larri eta bidegabe batzuen biktimak, “*stricto sensu*” aurreko multzoetakoren batean sartu ez arren, diagnostikoa osatzeko kontuan hartu behar direnak, kontuan izanda Legebiltzarraren aginduaren helburua sufrimendu bidegabe guztiak aitortzea dela.

9.5. Erabat demokratikoa bihurtu den testuinguru batean giza eskubideak urratu dizkieten biktimen kasuan, kontuan izanda testuinguru hori barneko zuzenbidearen eta jurisdikzio-kontrolaren eta, hedaduraz, nazioarteko estandarren mende dagoela, egoera hori erreparatzea eskumena duen gobernu-atalaren eginkizuna izango da eta, hortaz, euskal aginte publikoek egin beharreko lana egindako kaltearen ordaina behar bezala osatzea litzateke.

9.6. Txosten hau aurkeztea eragin duen ekimena ezinbesteko pauso trazedentala da, demokrazia baten eta zuzenbide-estatu baten legitimitatea indartzeko prozesuan, estatu hori gauza baita bere aldi zailenetako batzuk kritikoki berrikusteko, gardentasun-espirituarekin eta, gomendioetan esaten denez, gauzak zuzendu, ordaindu eta hobetzeko espirituarekin.

9.7. Proposatutako gomendioak aplikatzea eta giza eskubideei buruzko kultura osoa garatzea osagarri onena izango da aginte publikoek beren jurisdikziopeko herritarren segurtasunaren alde egiteko duten betebeharrarekin jarraitzeko, herritar horien eskubide eta askatasunen aurkako erasoren bat gertatzen bada; eta horien artean, euskal testuinguruan, bereziki indarkeria terrorista sartu behar da, ETArena nagusiki, talde terrorista hori baita euskal herritarren arteko elkarbizitza oraindik ere mehatxatzen duen bakarra.

9.8. Proposatzen diren neurriak kudeatzeko, Gobernuari jarduera-ildo bat eta giza baliabide eta baliabide material egokiak eta behar bestekoak jarri beharra gomendatzen zaio, uste baita ordaina emateko programa garatzea prozesu luzea eta denboran asko iraungo duena izango dela.

9.9. Erreparaziorako emateko programa garatzeko egokituko den eta legitimitatea izango duen erakunde publikoaren eginkizuna izango da programa hori kasu konkretuetan aplikatzea, txosten honetan deskribatu diren kategorietakoren batean sartzen bada, eta urratzearen egilea aginte edo botere publikoren bat izan dela esan badaiteke, zuzenean esku hartzeagatik, konplizitateagatik, edo egin beharrekoan utzikieriaz aritzeagatik. Egin beharrekoa egitean zorrotasunez jardun beharko bada ere, behar besteko malgutasuna ere erakutsi beharko da, Legebiltzarraren aginduaren espirituan ere hala sumatzen baita, bidegabeko sufrimendu guztiak eta

giza eskubideen urratze guztiak aitortu ahal izateko, betiere Euskadin bizi izandako indarkeria politikoaren esparruan, eta orain arte arretarik jaso ez duen neurrian.

9.10. Aitortzen diren kasu guztietan, biktima orok justizia egin dadin, egia jakin dadin eta erreparaziorako duen eskubidea bete beharko da.


9.11. Legebiltzarrari gaiari heltzeko **Ponentzia** berezi bat sortzea proposatzen zaio, garbi izanda oinarrizko kontsentsua lortzea beharrezkoa dela, baina kontsentsu zabala izan beharko duela, ezarri beharreko neurrien zenbaterainokoa zehazteko orduan; era berean, kontuan izan beharko da Giza Eskubideen Batzordean eta beste ponentzia batzuetan izandako esperientzia.

Txosten honetan gomendatzen diren neurriak garatzea aurrerapauso handia izango da Euskadin bakea lortzeko bidean, eta bakea ekainaren 19ko 4/2008 Legean zehazten den moduan ulertuta: “denok gizarte berri batean, bakean, askatasunean eta elkarbizitza harmonikoan bete-betean integratu gaitezen laguntzea”.

ESKUBIDE-URRATZEEN KONPARAKETA, URTEKA¹⁹

Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko 2008ko ekaineko txostenean jasotako datuak lehen erreferentzia gisa hartuta, zantzuen berri izateko besterik ez bada ere, eta aztertutako aldiaren zenbat kasu gertatu diren jakiteko, grafiko batean erakutsi daiteke errealitatea. Grafikoak garbi asko erakusten du arazoak zer nolako intentsitate kuantitatiboa izan zuen diktaduraren amaierako urteetan eta, batez ere, trantsizioaren garaian nahiz Konstituzioaren aldiko lehen urteetan; gero, beherakada nabarmena izan zen laurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera.

Eskubide-urraketaren konparazioa, urteka



¹⁹ Grafikoak egiterakoan, beste egile batzuek landutako zerrendak hartu dira oinarri gisa. Nahiz eta kopuru zehatzetan aldaketaren bat egon daitekeen, hainbat iturriren bidez egiaztatu ahal izan den errealitatearen berri ematen dute. Garrantzitsua da argitzea ez direla tortura-salaketak kontuan hartu.